

LIZITAZIO IRAGARKIA

Geurien be bai egitasmoa kudeatzeko zerbitzu-kontratua

Zerbitzu-kontratu hori egiteko, Udalak baldintzen orriak onartu dituela jakinarazten da:

1. Esleipena egiten duen erakundea:

- a. Erakundea: Bermeoko Udala.
- b. Espedientearen izapidetzaila: Euskara Saila.
- c. Espediente zenbakia: Euskara Sailaren 82-1 espediente

2. Kontratuaren xedea:

- a. Zehaztapena: *Geurien be bai* egitasmoa kudeatzeko zerbitzua ematea.
- b. Zerbitzuaren ezaugarriak: Baldintza teknikoetan zehazten direnak.
- c. Burutzeko epea: Urtebete eta beste urtebete luzatzeko aukera.

3. Tramitazioa, eta prozedura

- a. Tramitazioa: Ohikoa.
- b. Prozedura: Publizitateagazko prozedura negoziatua.

4. Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua

Kontratu honen prezioa, 31.600 eurokoa da, BEZ kanpo. BEZari dagokion zenbatekoa, 8.400 eurokoa da. Guztira, 40.000 euro. (Luzapena barne, prezioa hau da: 63.200 euro, BEZ kanpo. BEZari dagokion zenbatekoa, 16.800 euro. Guztira, 80.000 euro).

5. Bermeak:

- a. Behin-behineko bermea: Kontratu honen prezioaren %3a izango da, BEZ kanpo, hau da, 948 €.
- b. Behin-betiko bermea: Kontratu honen prezioaren %5a izango da, BEZ kanpo, hau da, 1.580 €.

6. Dokumentazioa eta informazioa eskuratzea:

- a. Erakundea: Bermeoko Udala (Berhaz)
- b. Helbidea: Ertzilla kalea 6 – 8
- c. Herria eta posta kodea: Bermeo 48370
- d. Telefonoa: 94 617 91 91
- e. Faxe: 94 688 23 12
- f. E-posta: berhaz@bermeo.eus
- g. Dokumentuak eta argibideak lortzeko azken eguna: Eskaintzak aurkezteko azken eguna.



7. Esleipendunak betebeharreko baldintza bereziak:

Administrazio Baldintza zehatzen eta baldintza teknikoen orrietan zehazten direnak.

8. Proposamenak aurkeztea:

- a. Lekua: BERH@Z Bulegoa, Ertzilla kalea 6-8 48370 BERMEO.
- b. Orduak: Astelehenetik barikura 08:30-14:30. Martitzenetan eta eguenetan 16:30 – 19:00. Larunbatetan 10:00 – 13:00.
- c. Lizitazioan parte hartzeko epea: 2017ko urtarrilaren 11a.
- d. Aurkezteko beharrezko dokumentazioa: Administrazio baldintza zehatzen orrietan zehazten dena.

9. Esleipena:

Eskaintzak aurkezteko epea amaitu eta gero, gehienez, hilabeteko epean irekiko dira Kontratazio Mahaiak erabakitako egun eta orduan.

Esleipena, gehienez, bi hilabeteko epean egingo da, proposamenak ireki eta biharamunetik kontatzen hasita.

10. Esleipen irizpideak:

Proposamen teknikoa	% 45
Hobekuntzak	% 20
Proposamen ekonomikoa	% 35

Irizpide horiek, puntuatzeko kontuan izango direnak, Administrazio Baldintza zehatzen agirian finkatzen dira.

Bermeon, 2016ko abenduaren 28n.

